

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ORIOKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea Orioko aparkalekuak erregulatzeko udal ordenantzari.

Udal honetako udalbatzarrak, 2021eko abenduaren 30ean egindako ohiko bilkuran, lehen onarpena eman zion Orioko aparkalekuak erregulatzeko udal ordenantzari.

Ordenantza hori hogeita hamar laneguneko epean jarri zen jendaurrean, 2022ko urtarrilaren 25eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAREN 15. zenbakian argitaratutako iragarkiaren bidez, eta aurkeztutako alegazio bakarra (Elkartu Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzaileak) ia osotasunean onartu ondoren, Orioko Udalbatzarrak, 2022ko martxoaren 31n egindako ohiko bilkuran, aipatutako Ordenantza behin betikoz onartu zuen.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan Eranskin gisa argitaratzen da udal araudi erregulatzaileraren testua; testua ez da indarrean sartuko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost lanegunetako epea iragan arte.

Administrazio-bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, alde zurretik, udalbatzarraren aurrean aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertze errekurtsoa erabaki arte edota presuntziozko ezespina eman arte.

Hori guztia egoki irizten diren beste edozein errekurtso jartzeko kalterik gabe.

ERANSKINA

Orioko aparkalekuak erregulatzeko udal-ordenantza.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Ordenantza hau udal-zirkulazioaren ordenantzaren 7. artikuluen baitan egiten da eta Orioko herriko aparkalekuekin eta horien erabilerarekin zerikusia duten alderdi batzuk arautzea du helburu, erabiltzaileen segurtasuna areagotzeko, ibilgailuen trafikoaren beharrezko arintasuna hobetzeko, eta aparkalekuen errotazio eta erabilera ona bermatzeko.

AYUNTAMIENTO DE ORIO

Aprobación definitiva de la ordenanza municipal reguladora de los aparcamientos del municipio de Orio.

El Pleno de este Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el día 30 de diciembre de 2021, acordó aprobar inicialmente la ordenanza municipal reguladora de los aparcamientos del municipio de Orio.

Habiéndose sometido dicha Ordenanza al trámite de exposición pública por el plazo de treinta días hábiles mediante anuncio publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 15 de fecha 25 de enero de 2022 y habiéndose estimado casi en su totalidad la única alegación presentada por Elkartu –Federación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa–, el Pleno del Ayuntamiento de Orio en sesión ordinaria celebrada el día 31 de marzo de 2022, aprobó definitivamente la citada Ordenanza.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, a continuación se procede a publicar como anexo a este anuncio el texto del reglamento regulador, con la indicación de que no entrará en vigor hasta que se haya publicado el texto en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y haya transcurrido el plazo de quince días hábiles.

Contra el acuerdo municipal que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Pleno de este Ayuntamiento, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

ANEXO

Ordenanza municipal reguladora de los aparcamientos del municipio de Orio.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Objeto.

La presente Ordenanza, que se desarrolla en el marco del artículo 7 de la Ordenanza de Circulación Municipal, tiene por objeto regular determinados aspectos relacionados con los aparcamientos y su uso en el municipio de Orio, con el fin de aumentar la seguridad de los usuarios, mejorar la necesaria fluidez del tráfico rodado y garantizar la rotación y el buen uso de los aparcamientos.

Ordenantza honen xedea trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea da. Horretarako, aparkatzeko leku- eta denbora-mugak ezarriko dira zerbitzu partikular edo publikorako erabiltzen den 3.500 kg arteko edozein ibilgailuentzat bide publikoko eremuetan eta ordenantzan aurreikusitako lekuetan.

Helburua da oreka handiagoa lortzea herriko hainbat eremutan aparkatzeko eskaintzaren eta eskariaren artean. Helburu hori lortzeko, Udalak (bere kabuz edo zerbitzu hori emateko kontratatutako enpresen laguntzarekin) bete ditzakeen mugatze-, kontrol- eta inbertsio-jarduerak garatzen dira ordenantza honen bidez.

II. TITULUA

APARKALEKUEN ERREGULAZIOA

2. artikulua. Eremuak eta seinaleak.

Araubide berezi honen pean dauden eremuak ordenantza honetako planoetan jasota daude. Eremu horiek behar bezala seinaleztatuko dira, seinale horizontalen bidez edota seinale bertikalen bidez (ahal denean).

Udalbatzarrak ahalmena izango du eremu arautuak eta horien izaera aldatzeko, betiere dagokion prozedura betez eta, aldez aurretik, eremu horietako bizilagunen parte-hartzea bermatuz.

3. artikulua. Ordainketa.

Araututako aparkaleku gisa behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoetan aparkatzen bada ibilgailua, ordaindu egin beharko da.

Aparkaldi arautuko gunean aparkatzeko, baimena eskuratu beharko da, horretarako ezarritako sistema erabilia eta dagokion tasa ordaindu ondoren. Baimen horrekin batera aparkatzeko txartel bat emango da, edo ez. Aparkatzeko baimenarekin batera aparkatzeko txartela ematen den kasuetan, ibilgailuaren aurreko kristalaren barnealdean ezarri beharko da txartela, kanpotik erraz irakurri ahal izateko moduan.

Tarifak dagokion ordenantza fiskalean ezarri eta eguneratuko dira.

4. artikulua. Eremuak, denboraldiak eta ordutegiak.

Eremu berriak sortu edo daudenak aldatu ahal izango dira, alkate-dekretu bidez, aldez aurretik dagokion batzorde informatzailean hala diktaminatuta eta behar bezala justifikatuta.

4.1. Bertakoen eremuak:

Udalerrian bertakoentzat gordetako guneak indarrean egongo dira eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan.

Bertakoen eremuetan aparkatu ahal izateko, indarrean dauden Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu beharko da eta txartel hori bistan izan beharko dute ibilgailuek.

Bertakoen eremuak hauek dira:

- Anibarko Portua.
- Estropalari-Bikamiota.
- Pelotari.
- Autopista azpiko ibilgailu luzeen aparkalekua.
- Alde zaharra.

4.2. Errotazio handiko eremuak:

Horietan, gehienez 15 minutu aparkatu ahal izango da eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan, salbuespen honekin: mugikortasun urriko pertsonen jabetzako ibilgailuek aparkatu ahal izango dute, gehienez 30 minutuz. Aparkaleku horien helburua plazak bermatzea da, herrigunera gestio azkarrak egitera datozenentzat.

Tiene por objeto ayudar a ordenar y mejorar el tráfico, mediante la limitación espacial y temporal del estacionamiento de toda clase o categoría de vehículos hasta 3.500 kg destinados al servicio particular o público en lugares o zonas de la vía pública y aparcamientos previstos en la misma.

Constituye su objetivo la consecución de un mayor equilibrio entre la oferta y la demanda de estacionamiento en distintas zonas del municipio y, para ello, se desarrolla con actuaciones de limitación, control e inversión, destinadas al cumplimiento del citado fin, que puedan realizarse por el Ayuntamiento, bien directamente o con el auxilio de empresas contratadas para la prestación del servicio.

TÍTULO II

REGULACIÓN DE LOS APARCAMIENTOS

Artículo 2. Ámbitos y señalización.

Las zonas que quedarán sometidas a esta especial regulación se recogen en los planos que se adjuntan al presente documento. Dichas zonas estarán adecuadamente señalizadas, horizontalmente y/o verticalmente (cuando sea posible).

El pleno del Ayuntamiento podrá acordar la modificación de las zonas reguladas y el carácter de las mismas, ajustándose al procedimiento correspondiente y garantizando la participación de los residentes afectados.

Artículo 3. Pago.

La obligación de pago se origina por el aparcamiento de un vehículo en los lugares o vías públicas que estén debidamente señalizadas como zonas de estacionamiento regulado.

Para estacionar en el ámbito de estacionamiento regulado, deberá obtenerse autorización mediante el sistema implantado a tal fin, previo pago de la tasa correspondiente, pudiendo conllevar emisión de título habilitante (ticket) o no. En los casos en que la autorización de aparcamiento conlleve la emisión de título habilitante (ticket), este deberá colocarse en la parte interior de la luna frontal del vehículo de manera que sea fácilmente legible desde el exterior.

Las tarifas se determinarán y actualizarán en la correspondiente ordenanza fiscal.

Artículo 4. Zonas, períodos y horarios.

Se podrán establecer nuevas zonas y/o cambiar las existentes, mediante decreto de alcaldía, previo dictamen de la comisión informativa correspondiente y justificándolo debidamente.

4.1. Zonas de residentes:

Las zonas reservadas para residentes en el municipio permanecerán vigentes las 24 horas del día y los 7 días de la semana.

Para poder estacionar en las zonas de residentes será necesario disponer de la Tarjeta Municipal de Aparcamiento vigente, que los vehículos deberán tener a la vista.

Las zonas de residentes son:

- Anibarko Portua.
- Estropalari-Bikamiota.
- Pelotari.
- Aparcamiento de vehículos largos bajo la autopista.
- Casco antiguo.

4.2. Zonas de alta rotación:

En ellos se podrá estacionar un máximo de 15 minutos los 7 días de la semana y durante las 24 horas del día, excepto los vehículos de personas con movilidad reducida que podrán estacionar un máximo de 30 minutos. El objetivo de estos aparcamientos es garantizar las plazas para las personas que acuden al núcleo urbano a realizar gestiones rápidas.

Plaza horiek ordainpekoak izan daitezke, edo ez.

– Moilako aparkalekuak.

Errotazio handiko eremu berriak ezarri ahal izango dira, alkate-dekretu bidez, aldez aurretik dagokion batzorde informatzailean hala diktaminatuta eta behar bezala justifikatuta.

4.3. Egonaldi laburreko eremuak:

Eremu horien helburua izaera komertziala duten guneetan aparkalekuen errotazioa sustatzea da. Aparkatzen duten ibilgailu guztiek atera beharko dute tiketa. Urte guztian egongo da indarrean, ordutegi honetan:

Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

Larunbatetan: 09:00-13:00.

Egonaldi laburreko eremuak hauek dira:

– Eusko Gudarien kalea.

– Arrantzale kalea.

– Abeslari kalea.

– Ibai-Ondo pasealekua.

Eremu hauek erabat edo partzialki izango dira eremu urdinak. Partzialki diren kasuetan, alkate-dekretu bidez erabakiko da eremu zuriko plazak libreak izango diren ala bertakoentzat izango diren.

Era berean, egonaldi laburreko eremu berriak ezarri ahal izango dira alkate-dekretu bidez, aldez aurretik dagokion batzorde informatzailean hala diktaminatuta eta behar bezala justifikatuta.

4.4. Egonaldi luzeko eremuak:

– Hondartza aldea.

– Abaromendi.

– Autopista Azpia.

– Munto.

Egonaldi luzeko aparkalekuetan hiru denboraldi bereizten dira:

* Udaldia: ekainaren 1etik irailaren 15era, biak barne.

Astelehenetik igandera: 10:00-20:00.

* Denboraldi ertaina: Aste Santutik maiatzaren 31ra eta irailaren 14tik azaroaren 1era, biak barne.

– Hondartza, Abaromendi eta autopista azpiko ordutegia:

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00. Lanegunetan, libre.

– Muntoko aparkalekuko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

Larunbat, igande eta jaiegunetan: 10:00-20:00.

* Behe denboraldia: azaroaren 2tik Aste Santu bezpera arte.

– Hondartza, Abaromendi eta autopista azpia: libre izango da aparkatzea.

– Muntoko aparkalekuko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 09:00-13:00 eta 16:00-20:00.

Larunbatetan: 09:00-13:00.

Egonaldi luzeko eremuetan egonaldi laburreko edo bertakoentzako zenbait eremu ezarri ahal izango dira alkate-dekretu bidez, aldez aurretik dagokion batzorde informatzailean hala diktaminatuta eta behar bezala justifikatuta.

5. artikulua. *Salbuespenak.*

Ibilgailu hauek ez dituzte ordainduko bide publiko edo eremu jakinetan aparkatzeko ordenantza honek araututako tasak:

Estas plazas podrán ser de pago o no.

– Aparcamientos en el muelle.

Se podrán establecer nuevas zonas de alta rotación, mediante decreto de alcaldía, previo dictamen de la comisión informativa correspondiente y justificándolo debidamente.

4.3. Zonas de corta estancia:

El objetivo de estas zonas es promover la rotación de aparcamientos en zonas de carácter comercial. Todos los vehículos estacionados deberán obtener el correspondiente ticket. Estará vigente todo el año con el siguiente horario:

Lunes a viernes: 09:00-13:00 y 16:00-20:00.

Sábados: 09:00-13:00.

Las zonas de corta estancia son:

– Eusko Gudarien kalea.

– Arrantzale kalea.

– Abeslari kalea.

– Ibai-Ondo pasealekua.

Estas zonas serán, en su totalidad o parcialmente, zonas azules. Cuando sea parcialmente, se determinará mediante decreto de alcaldía si las plazas de zona blanca serán libres o serán para residentes.

Asimismo, se podrán establecer nuevas zonas de corta estancia, mediante decreto de alcaldía, previo dictamen de la comisión informativa correspondiente siempre justificándolo debidamente.

4.4. Zonas de larga estancia:

– Zona playa.

– Abaromendi.

– Bajo la autopista.

– Munto.

En los aparcamientos de larga estancia se distinguen tres temporadas:

* Verano: del 1 de junio al 15 de septiembre, ambos inclusive.

Lunes a domingo: 10:00-20:00.

* Temporada media: De Semana Santa al 31 de mayo y del 14 de septiembre al 1 de noviembre, ambos inclusive.

– Horario en Hondartza, Abaromendi y bajo la autopista:

Sábados, domingos y festivos: 10:00-20:00. Libre en días laborables.

– Horario en aparcamiento Munto.

Lunes a viernes: 09:00-13:00 y 16:00-20:00.

Sábados, domingos y festivos: 10:00-20:00.

* Temporada baja: Desde el 2 de noviembre hasta la víspera de Semana Santa.

– Playa, Abaromendi y bajo la autopista: aparcamiento libre.

– Horario del aparcamiento de Munto:

Lunes a viernes: 09:00-13:00 y 16:00-20:00.

Sábados: 09:00-13:00.

Dentro de las zonas de larga estancia se podrán establecer determinadas zonas de corta estancia o de residentes, mediante decreto de alcaldía, previo dictamen de la comisión informativa correspondiente siempre justificándolo debidamente.

Artículo 5. *Excepciones.*

No estarán sujetos a la tasa regulada en esta Ordenanza, el estacionamiento en las vías o zonas señaladas de los siguientes vehículos:

- a) Motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak, baldin eta arautako aparkaldirako plazak okupatzen ez badituzte eta horrelakoak aparkatzeko egokitutako lekuetan baldin badaude.
- b) Beren kategoriarako edo jarduerarako erreserbatutako eremuetan aparkatzeko udal-baimena duten ibilgailuak.
- c) Zamilan egiteko jarrirako leku eta orduetan lan horietan ari diren merkataritzako ibilgailuak.
- d) Autotaxi ibilgailuak, gidaria bertan eta Zerbitzuan dagoenean.
- e) Hiletetako ibilgailuak, Zerbitzuan daudenean.
- f) Larrialdietako ibilgailuak: anbulantziak, suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta polizia; horiek guztiak Zerbitzuan daudenean.
- g) Barruan gidaria edo bidaiariren bat duen ibilgailua, aparkaldia bost minutu baino gutxiagokoa denean.
- h) Desgaitasuna duten pertsonentzako Europako Aparkatzeko Txartelaren titular diren mugikortasun urriko pertsonen jabetzako ibilgailuak, martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan araututakoak, baldin eta berentzako aparkalekuak libre ez badaude.
- i) Aparkatzeko Udal Txartela indarrean duten ibilgailuak egonaldi laburreko eremuetan izan ezik.
- j) Zerbitzu publikoei atxikitako ibilgailuak, behar bezala errolatu eta identifikatuak, Zerbitzuan daudenean.

6. artikulua. Zerbitzua arautzea.

Udalak Araubide Bereziko Aparkalekuak ezarriko ditu, segidan zehazten diren eremuetan. Alkateak eskumena izango du horiek aldatzeko, ezohiko egoeretan, alde zuzenetik dagokion batzorde informatzailean hala diktaminatuta, zerbitzu teknikoaren proposamenez eta ebazpen arrazoitu baten bidez.

6.1. Bertakoentzat gordetako eremuak.

Soilik Aparkatzeko Udal Txartela indarrean duten ibilgailuak aparkatzeko izango dira eta B/R letra zuriekin identifikatuta egongo dira.

6.2. Errotazio handiko eremuak.

Horietan, gehienez 15 minutu aparkatu ahal izango da, salbuespen honekin: mugikortasun urriko pertsonen jabetzako ibilgailuek aparkatzeko gehienezko denbora 30 minutukoa izango da. Kolore urdinez pintatuta edota seinale bertikal bidez seinaleztatuta egongo dira; lurtean «15'» jarriko da. Ibilgailu guztiak bete beharko dituzte eremu horietan aparkatzeko denboraren mugak. Denbora hori igaro ondoren, 11. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko dira.

6.3. Egonaldi laburreko eremuak.

Lurtean pintura urdinez seinaleztatuta edota dagokion seinale bertikalaren bidez seinaleztatuta egongo dira.

Aparkaldia gehienez ordu eta erdikoa izango da ibilgailu guztiarentzat. Denbora hori igaro ondoren, 11. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko dira.

Ibilgailu guztiak bete beharko dituzte eremu horietan aparkatzeko denboraren mugak eta aparkatzeko txartela ateratzeko betebeharra, bai eta ordenantza honetan aurreikusitako bereizgarrien bat duten ibilgailuek ere.

Aparkaleku horietan aparkatzea doan izango da, lehenengo 30 minututan.

Ondorengo ordua ordainpekoa izango da; bertakoek tarifa berezia izango dute eta besteek, tarifa arrunta, urtean urteko ordenantza fiskaletan zehaztuko dena.

6.4. Egonaldi luzeko eremuak.

Lurtean pintura urdinez seinaleztatuta edota dagokion seinale bertikal bidez seinaleztatuta egongo dira.

- a) Motocicletas, ciclomotores y bicicletas siempre que no ocupen las plazas señalizadas para el estacionamiento regulado y se circunscriban a los lugares que se habiliten para ello.
- b) Los vehículos estacionados en zonas reservadas con autorización municipal para su categoría o actividad.
- c) Los vehículos comerciales que estén realizando labores de carga y descarga en las zonas y horarios asignados para ello.
- d) Los vehículos auto taxi, cuando el conductor esté presente y en servicio.
- e) Los coches funerarios cuando estén de servicio.
- f) Los vehículos de urgencias, ambulancias, bomberos, Cruz Roja, DYA y Policía, todos ellos cuando estén prestando servicio.
- g) Los vehículos automóviles en cuyo interior permanezca el conductor o algún pasajero, siempre que el tiempo de estacionamiento sea inferior a cinco minutos.
- h) Los vehículos de personas con movilidad reducida titulares de la Tarjeta Europea de Estacionamiento para personas con discapacidad regulada en el Decreto 50/2016 de 22 de marzo, siempre y cuando no haya plazas adaptadas libres.
- i) Los vehículos con tarjeta de aparcamiento municipal en vigor excepto en las zonas de corta estancia.
- j) Los vehículos adscritos a los servicios públicos, debidamente rotulados e identificados, cuando efectivamente estén prestando el correspondiente servicio.

Artículo 6. Regulación del servicio.

El Ayuntamiento establecerá Aparcamientos de Régimen Especial en las zonas que se detallan a continuación. El alcalde o alcaldesa será competente para su modificación, en circunstancias excepcionales, previo dictamen de la comisión informativa correspondiente, a propuesta de los servicios técnicos y mediante resolución motivada.

6.1. Zonas reservadas para residentes.

Se destinarán exclusivamente al estacionamiento de vehículos con Tarjeta Municipal de Aparcamiento vigente y se identificarán con las letras B/R en color blanco.

6.2. Zonas de alta rotación.

El tiempo máximo de estacionamiento será de 15 minutos, excepción hecha del tiempo máximo relativo a los vehículos de personas con movilidad reducida, que será de 30 minutos. Estarán pintadas de color azul y/o señalización vertical; en el suelo se marcará «15'». Todos los vehículos deberán respetar los límites de tiempo de estacionamiento en estas zonas. Transcurrido este tiempo se aplicarán las medidas previstas en el artículo 11.

6.3. Zonas de corta estancia.

Estarán señalizadas en el suelo con pintura azul y/o señalización vertical correspondiente.

El tiempo máximo de estacionamiento será de hora y media para todos los vehículos. Transcurrido este tiempo se aplicarán las medidas previstas en el artículo 11.

Todos los vehículos deberán cumplir los límites de tiempo de estacionamiento y la obligación de disponer de la tarjeta de estacionamiento en estas zonas; también los vehículos que dispongan de alguno de los distintivos previstos en esta Ordenanza.

El estacionamiento en estos aparcamientos será gratuito durante los primeros 30 minutos.

La hora posterior será de pago, los residentes tendrán una tarifa especial y los demás, la tarifa ordinaria, que se determinará anualmente en las ordenanzas fiscales.

6.4. Zonas de larga estancia.

Estarán señalizados en el suelo con pintura azul y/o señalización vertical correspondiente.

Aparkaldia mugagabekoa izango da.

Ibilgailuek aparkatu ahal izango dute, behin ordenantza fiskaletan araututako prezioa ordaindu ondoren.

Ibilgailu guztiak bete beharko dituzte eremu horietan aparkatzeko denboraren mugak eta aparkatzeko txartela ateratzeko betebeharra, Aparkatzeko Udal Txartela indarrean duten ibilgailuek izan ezik.

6.5. Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak.

Desgaitasuna dutenentzako Europako Aparkatzeko Txartela duten ibilgailuek bakarrik aparka dezakete. Plazak bertikalean edota horizontalean seinalezatuko dira, behar bezala, eta hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren 3.11. artikulua II. eranskinean xedatutakoa bete beharko dute.

Plaza horiek beteta dauden kasuetan, ibilgailu horiek edozein aparkalekutan aparkatzeko aukera izango dute ordaindu gabe, betiere dagokion txartela agerian jarrita eta dagokion tike-ta atera eta eremu horri dagokion denbora-muga errespetatuta.

III. TITULUA

APARKATZEKO UDAL TXARTELA

7. artikulua. *Aparkatzeko Udal Txartela.*

Oro har, Orion erroldatutako ibilgailuek jaso dezakete (edo ordenantza fiskaletan hala erabakiko balitz, erosi ahal izango dute) Aparkatzeko Udal Txartela, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Ibilgailua Orioko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren erroldan alta emanda egotea eta erroldan adierazitako titulartasunarekin eta helbidearekin bat etortzea. Gainera, zerga hori ordainduta eduki beharko da.

b) Ibilgailuaren titullarrak Orioko Udalarekin inolako zorrik ez izatea, Udaleko trafiko-isunak barne.

c) Ibilgailuaren pisua, gehienez, 3.500 kilokoa izan beharko du.

8. artikulua. *Aparkatzeko Udal Txartela lortu ahal izateko bestelako egoerak.*

Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu ahal izateko, bi baldintza hauek bete beharko dira ezinbestean:

a) Ibilgailuaren pisua, gehienez, 3.500 kilokoa izan beharko du.

b) Orioko Udalarekin inolako zorrik ez izatea, udaleko trafiko-isunak barne.

Horrez gain, Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu ahal izango dute, betiere ordenantza fiskaletan zehaztutako tasa ordaindu eta gero, baldintza hauek betetzen dituztenek:

8.1. Autoa alokairuan duten bertako bizilagunak.

Aparkatzeko Udal Txartela lortu ahal izango dute ohiko bizilekua Orion izanik, bertan erroldatuta egon eta ibilgailua alokairu finantzarioan (leasing edo renting-ean) duten pertsona fisikoek. Hori lortzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte ezinbestez:

a) Ibilgailuaren kontratuaren titularra Orion erroldatuta izatea.

b) Leasing edo renting-aren kontratu originala eta ibilgailuaren aseguru-poliza aurkeztu beharko dituzte, baita agiri horien fotokopiak ere.

El estacionamiento será indefinido.

Los vehículos podrán estacionar una vez abonado el precio regulado en las ordenanzas fiscales.

Todos los vehículos deberán cumplir los límites de tiempo de estacionamiento en estas zonas y la obligación de disponer de la tarjeta de estacionamiento, salvo los vehículos que tengan en vigor la Tarjeta Municipal de Aparcamiento.

6.5. Aparcamientos para personas con movilidad reducida.

Sólo podrán aparcar los vehículos con la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con Discapacidad. Las plazas se señalarán adecuadamente en vertical y/o horizontal, y deberán cumplir con lo dispuesto en el anexo II del artículo 3.11 del Decreto 68/2000 de 11 de abril por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

En los casos en que estas plazas estén ocupadas, estos vehículos podrán aparcar en cualquier aparcamiento sin coste, siempre que la correspondiente tarjeta esté situada a la vista y sacando el ticket correspondiente a la zona en la que aparca y con los límites de duración que corresponda a cada zona.

TÍTULO III

TARJETA MUNICIPAL DE APARCAMIENTO

Artículo 7. *Tarjeta Municipal de Aparcamiento.*

Con carácter general, los vehículos empadronados en Orio podrán recibir (o comprar si así se decidiera en las correspondientes ordenanzas fiscales), la Tarjeta Municipal de Aparcamiento, siempre que cumplan los siguientes requisitos:

a) Que el vehículo esté dado de alta en el Padrón del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica de Orio y que coincidan la titularidad y el domicilio que consta en el mismo. Además, deberá estar al corriente en el pago de este impuesto.

b) Que el titular del vehículo no tenga ninguna deuda con el Ayuntamiento de Orio, incluidas multas de tráfico impuestas por el Ayuntamiento.

c) El peso del vehículo no deberá exceder de 3.500 kilogramos.

Artículo 8. *Otras circunstancias para poder obtener la Tarjeta Municipal de Aparcamiento.*

Para poder obtener la Tarjeta Municipal de Aparcamiento se deberán cumplir necesariamente dos requisitos:

a) El peso del vehículo no deberá exceder de 3.500 kilogramos.

b) Que el titular del vehículo no tenga ninguna deuda con el Ayuntamiento de Orio, incluidas las multas de tráfico impuestas por el Ayuntamiento.

Además de esto, podrán obtener la Tarjeta Municipal de Aparcamiento, previo pago de la tasa establecida en las ordenanzas fiscales, quienes cumplan los siguientes requisitos:

8.1. Residentes cuyo vehículo está en régimen de alquiler.

Podrán obtener la Tarjeta de Residente las personas físicas con residencia habitual en Orio, empadronadas en Orio y que tengan su vehículo en régimen de alquiler financiero (leasing o renting). Para ello, deberán cumplir obligatoriamente los siguientes requisitos:

a) Que el titular del contrato del vehículo esté empadronado en Orio.

b) Presentar el contrato original de leasing o renting y la póliza de seguro del vehículo, así como fotocopias de dichos documentos.

8.2. Enpresako ibilgailua erabiltzen duten bertako bizilagunak.

Aparkatzeko Udal Txartela lortu ahal izango dute ohiko bizi-lekua Orion izanik, bertan erroldatuta egon eta lan-ibilgailua erabiltzen duten pertsona fisikoek. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte, ezinbestez:

a) Eskatzailea Orion erroldatuta izatea eta Orioko Udalarekin inolako zorrik ez izatea, Udalak jarritako trafiko-isunak barne.

b) Enpresaren ziurtagiria aurkeztea, autoaren matrikula jasotzen duena eta ibilgailu horren gidaria Orion erroldatutako eskatzailea dela egiaztatzen duena.

c) Ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana akreditatzen duen agiria.

8.3. Oriotik kanpo erroldatuta dauden baina Orion lan egiten duten langileak.

Oriotik kanpo erroldatuta dauden baina herrian lan egiten dutenek Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu ahal izango dute. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Lan-kontratuaren kopia konpultsatua aurkeztea.

b) Ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana akreditatzen duen agiria aurkeztea.

8.4. Orion bigarren etxebizitza dutenak.

Orion etxebizitza baten titular direnak eta bertan erroldatuta ez daudenak Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu ahal izango dute. Etxebizitza bakoitzeko txartel bakarra eskuratu ahal izango dute. Baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eskrituren kopia konpultsatua edo etxebizitzaren jabe-tza egiaztatzen duen erregistroko ziurtagiria aurkeztea.

b) Ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana akreditatzen duen agiria aurkeztea.

8.5. Aian erroldatutakoek.

Kontuan hartuta Aiako hainbat herritarrek egunerokoan Orion garatzen dutela bere bizimoduaren parte handi bat, Aian erroldatutakoek Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu ahal izango dute. Horretarako, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Aiako errolda-agiria aurkeztea.

b) Ibilgailuaren zirkulazio-baimena eta ordainketa egin izana akreditatzen duen agiria aurkeztea.

8.6. Beste egoera batzuk.

Ordenantza honetan jaso ez den bestelako egoeratan egon daitezkeen herritarrek, Aparkatzeko Udal Txartela eskuratu nahi badute, berariaz eskatu beharko dute eta alkate-dekretuz erabakiko da, dagokion batzorde informatzaileak aztertu eta dikta-minatu ondoren.

9. artikulua. Aparkatzeko Udal Txartelaren erabilera eta indarraldia.

Aparkatzeko Udal Txartela dutenek edozein lekutan aparkatu ahal izango dute, denbora-mugarik gabe, errotazio handiko eta egonaldi laburreko eremuetan izan ezik.

Hala eta guztiz ere, ibilgailua eremu berean mugitu gabe aparkatzeko gehienezko denbora lau astekoa izango da, ezinbesteko arrazoiengatik baimen berezia eskuratu ezean behintzat. Baimen berezi hori alkate-dekretu bidez emango da. Lau aste horiek igarota, ibilgailua beste aparkaleku batera aldatu beharko da. Ezin izango da berriro leku berean aparkatu, azken aldiz han aparkatu zenetik 24 ordu igaro arte.

Aparkatzeko Udal Txartela ibilgailuaren aurreko kristalaren barrualdean jarri beharko da, eskuineko aldean (gidariaren kon-

8.2. Residentes que utilizan un vehículo de empresa.

Podrán obtener la Tarjeta Municipal de Aparcamiento aquellas personas físicas que teniendo su residencia habitual en Orio, estén empadronadas y utilicen un vehículo de empresa. Para ello, deberán cumplir obligatoriamente los siguientes requisitos:

a) Que el solicitante esté empadronado en Orio y no tenga deudas pendientes con el Ayuntamiento de Orio incluidas las multas de tráfico impuestas por el Ayuntamiento.

b) Presentar certificado de la empresa en el que conste la matrícula del vehículo y que acredite que el conductor del mismo es el solicitante empadronado en Orio.

c) Permiso de circulación del vehículo y justificante de pago.

8.3. Trabajadores empadronados fuera de Orio que trabajan en Orio.

Las personas empadronadas fuera de Orio que trabajen en el municipio podrán obtener la Tarjeta de Residentes. Para ello deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Presentar copia compulsada del contrato de trabajo.

b) Presentar el permiso de circulación del vehículo y el justificante de haber realizado el pago.

8.4. Personas con segunda vivienda en Orio.

Quienes sean titulares de una vivienda en Orio y no estén empadronados podrán obtener la Tarjeta Municipal de Aparcamiento. Sólo se podrá adquirir una tarjeta por vivienda. Deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Presentar copia compulsada de las escrituras o certificación registral de la propiedad de la vivienda.

b) Presentar el permiso de circulación del vehículo y el justificante de haber realizado el pago.

8.5. Empadronados en Aia.

Teniendo en cuenta la relación funcional de numerosos vecinos de Aia que desarrollan gran parte de sus actividades en Orio, los empadronados en Aia podrán obtener la Tarjeta Municipal de Aparcamiento. Para ello deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Presentar certificado de empadronamiento en Aia.

b) Presentar el permiso de circulación del vehículo y el justificante de haber realizado el pago.

8.6. Otras circunstancias.

Los vecinos de Orio que se encuentren en alguna situación especial no recogida en la presente ordenanza, en caso de querer obtener la Tarjeta Municipal de Aparcamiento, deberán realizar una solicitud específica que será resuelta mediante Decreto de Alcaldía previo dictamen de la comisión informativa correspondiente.

Artículo 9. Uso y vigencia de la Tarjeta Municipal de Aparcamiento.

Los poseedores de la Tarjeta Municipal de Aparcamiento podrán estacionar en cualquier lugar, sin limitación de tiempo, excepto en zonas de alta rotación y de corta estancia.

No obstante, el tiempo máximo para estacionar el vehículo sin moverse en la misma zona será de cuatro semanas, salvo que por razones de fuerza mayor se obtenga autorización especial. Dicha autorización se concederá mediante decreto de alcaldía. Transcurridos estas cuatro semanas, el vehículo deberá ser trasladado a otro aparcamiento. No se podrá volver a estacionar en el mismo lugar hasta que transcurran 24 horas desde la última vez que se estacionó en el mismo.

La Tarjeta Municipal de Aparcamiento deberá colocarse en el interior del cristal delantero del vehículo, en el lado derecho

trakoan), kanpotik ongi ikusteko moduan. Aparkatzeko Udal Txartela urte natural batez erabili ahal izango da; eskusiboa izango da eta eskatzaileak bakarrik erabili ahal izango du, eta eskatuta-ko ibilgailurako bakarrik.

Aparkatzeko Udal Txartela jaso duten eskatzaileak izango dira horien erantzule, eta txartela jasotzeko baldintzetako bat aldatzen bada (etxebizitza-aldaketa ibilgailu-aldaketa, titularraren aldaketa...), Udalarari jakinarazi beharko diote, gehienez ere astebeteko epean. Orduan, beste txartel bat emango zaie, horretarako eskubiderik baldin badute, edo, bestela, lehendik zutena baliogabetuko zaie. Kasu batean zein bestean, txartel zaharra itzuli egin beharko dute.

Aparkatzeko Udal Txartela lapurtzen badiete edo galtzen badute, Udalarari lehenbailehen jakinarazi behar diote.

Aparkatzeko Udal Txartela ematerakoan, Udalak zehaztuko du noiz arte dagoen indarrean. Epe hori amaituta, ez du baliorik izango. Hala ere, Udalak, dagozkion egiaztapenak egin eta gero, ofizioz berriro dezake, automatikoki.

Titularrak Aparkatzeko Udal Txartela berriro nahi ez badu, kudeaketa-organoari jakinarazi beharko dio urteko denboraldi berria hasi baino lehen, eta txartela dagokion bulegoan entregatu beharko du.

Txartela entregatzen ez bada, titularrak bidegabe erabiltzen ari dela ulertuko da, eta horrek ordenantza honetako 11. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

10. artikulua. Betebeharrak.

Bide publikoetan eta aparkalekuetan aparkatzeko, arau orokor eta espezifiko guztiak bete beharko dira, aparkatzeko seinale guztiak errespetatutako dira eta, horrez gain, agiri hauetakoren bat lortu beharko da:

a) Aparkatzeko Udal Txartela, ordu-mugarik gabe aparkatzea ahalbidetzen duena arau orokor edo espezifikoren batek edo seinaleren batek bertan aparkatzea debekatzen ez duen lekuetan.

b) Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko be-reizgarria (MM izenekoa), ibilgailuaren aurreko kristalaren barrualdean jarri beharko dena, kanpotik erraz irakurtzeko moduan.

Oro har, kapitulu honetan ezarritako mugak ez zaizkie aplikatuko garbiketaren lanetan dabiltzan ibilgailu ofizialei, polizia ibilgailuei, suhiltzaileenei, larrialdietakoiei eta desgaitasuna duten pertsonak garraiatzen dabiltzanei.

IV. TITULUA

ZIGOR-ARAUBIDEA

11. artikulua. Zigor-araubidea.

1. Ordenantza honen edozein artikulua urratzea edo alkate-presidenteak ordenantza garatzeko hartutako erabakiak haustea trafikoko arau-haustetza hartuko da, eta zigorrak ezartzea ekarriko du, ezarrita dagoen legezko prozeduraren arabera.

2. Behar bezala eskatzen zaionean, ibilgailuaren titularrak identifikatu egin behar du nor den arau-haustea egin duen gidaria eta, beraz, arau-haustearen erantzulea. Dagokion prozedurazko tramitean justifikaziorik gabe obligazio hori betetzen ez badu, berari ezarriko zaio 11.3.k) artikuluan jasotako arau-haustearen zigorra.

3. Arau-haustek:

3.1. Arau-hauste arinak:

a) Ordenantza honetan adierazitako txartelak gabe aparkatzea, edo txartela ikusteko moduko lekuren batean ez jartzea.

(contrario al conductor), de forma que sea perfectamente visible desde el exterior. La Tarjeta de Residente se podrá utilizar durante un año natural y será exclusiva para el solicitante y el vehículo solicitado.

Los solicitantes que hayan recibido la Tarjeta Municipal de Aparcamiento serán responsables de la misma, debiendo comunicar al Ayuntamiento, en el plazo máximo de una semana, la modificación de cualquiera de las condiciones para su obtención (cambio de domicilio, cambio de titular, etc.). De este modo, se les entregará una nueva tarjeta, si tienen derecho a ello o se les anulará la que ya tenían. En ambos casos deberán devolver la tarjeta antigua.

En caso de robo o pérdida de la Tarjeta Municipal de Aparcamiento, deberán comunicarlo inmediatamente al Ayuntamiento.

En el momento de la expedición de la Tarjeta Municipal de Aparcamiento, el Ayuntamiento determinará la fecha de vigencia de la misma. Transcurrido dicho plazo, no tendrá validez. No obstante, el Ayuntamiento, previas las comprobaciones oportunas, podrá proceder a su renovación automática de oficio.

En caso de que el titular no desee renovar la Tarjeta Municipal de Aparcamiento deberá comunicarlo al órgano de gestión antes del inicio de la nueva temporada anual y entregarlo en la oficina correspondiente.

En caso de no aportar la tarjeta, se entenderá que el titular está haciendo un uso indebido de la misma, y ello tendrá los efectos previstos en el artículo 11 de esta Ordenanza.

Artículo 10. Obligaciones.

Para estacionar en las vías públicas y en los aparcamientos, se habrán de cumplir todas las normas generales y específicas, se respetará toda la señalización de aparcamiento y se deberá obtener alguno de los siguientes documentos:

a) Tarjeta Municipal de Aparcamiento, que permite estacionar sin limitación horaria en lugares en los que no se prohíba el estacionamiento por una norma general o específica o señalización.

b) Distintivo de estacionamiento para personas con movilidad reducida (denominado MM), que deberá colocarse en el interior del cristal delantero del vehículo para facilitar su lectura desde el exterior.

Con carácter general, las limitaciones establecidas en este capítulo no serán de aplicación a los vehículos oficiales en operaciones de limpieza, a los vehículos de policía, a los de bomberos, de emergencias y a quienes transporten personas con discapacidad.

TÍTULO IV

RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 11. Régimen sancionador.

1. La infracción de cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía-Presidencia, tendrán la consideración de infracciones a las normas de ordenación de tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

2. El titular del vehículo, debidamente requerido para ello, tiene el deber de identificar al conductor responsable de la infracción y si incumpliera esta obligación en el trámite procedimental oportuno sin causa justificada, será sancionado como autor de la infracción recogida en el artículo 11.3.k).

3. Se consideran infracciones:

3.1. Infracciones leves:

a) Estacionar sin tarjeta contemplada en la presente ordenanza, así como no colocar la tarjeta en sitio visible.

b) Aparkatzeko gehieneko denbora bukatu ondoren, eremu berean aparkatzea.

c) Bertakoentzat gordetako eremuan aparkatzea, eremu edo sektore horretako bizilagunen bereizgarria eduki gabe.

d) Ordenantza fiskalean ezarritako bereizgarria lortzeko tarifa ez ordaintzea.

3.2. Arau-hauste larriak:

a) Tiket edo bereizgarri manipulatu, faltsu, baliogabetu edo desegokia erabiltzea.

b) Bereizgarrien titularrek helbide-aldaketa edo ibilgailuaren eskualdatzea jakinarazteko obligazioa ez betetzea.

c) Ordenantza honetan jasotako bereizgarriak behar den moduan ez erabiltzea.

d) Bereizgarria emateko beharrezko den betebeharren bat ez betetzea eta Udalari horretarako jarritako epean ez jakinaraztea.

e) Bereizgarria jaso zuen ibilgailuaren jabetza eskualdatu ondoren ere, haren bereizgarria erabiltzea.

f) Ezinduentzako Europako Aparkaleku txartela edo, bestela, mugikortasun urriko pertsonentzako bereizgarria begi-bistan ez jartzea.

g) Arau-haustea egin duen gidari erantzulea ez identifikatzea, aurrez eskatuta ere.

h) Mugikortasun urria duten pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuetan aparkatzea, desgaitasuna duten pertsonentzako Aparkatzeko Europako Txartela izan gabe.

12. artikulua. Zigorrak eta araubide-neurriak.

Arau-haustea honakoekin bat etorri zigortuko dira: 6/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu batgina onartzeko dena, V. tituluan; eta legezko gainerako xedapen osagarrietan eta udal-ordenantzetan erabakitakoak.

Arau-hauste arinak 80 euroekin zigortuko dira (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, alkate-dekretu bidez eguneratuko da).

Arau-hauste larriak 200 euroekin zigortuko dira (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, alkate-dekretu bidez eguneratuko da). Horrez gain, bereizgarria baliogabetu eta urtebeteko epea pasatu arte ez zaio berririk egingo.

Horrez gain, ordaindu beharko dira, baita ere, Ordenantzako tarifetan jarritako prezioak, baita premiamendu-bidea erabilita baldin bada ere (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauarekin (martxoaren 8ko 2/2005), zeina lotuta dagoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzko urtarrilaren 11ko 2/1990 Foru Arauarekin). Sor litezkeen bestelako tasak ordaintzea ere eskatu daiteke.

Arau-hauste arinak.

– Egonaldi luzeko eremuetan, aparkatzeko ordu-muga bete eta hurrengo 90 minutuetan deuseztatu ahal izango dira, 15 € ordainduta behe-denboraldian, eta 30 € ordainduta, denboraldi ertainean eta goi-denboraldian.

– Egonaldi laburreko eremuetan, jakinarazi eta hurrengo 90 minutuetan baliogabetu ahal izango dira, 10 € ordainduta.

11.3. artikuluan tipifikatutako arau-haustea trafikoa eta aparkamenduen zerbitzu publikoa antolatu eta hobetzeko oztopo larriak dira, beraz, oker okupatutako espazioa berreskuratzeko, udal-agintaritzak ibilgailu hori erretiratuko du eta horretarako prestatutako gordailura eramango du, ezar daitekeen zigor ekonomikoa kontuan hartu gabe.

b) Volver a estacionar en la misma zona, una vez finalizado el período máximo de estacionamiento.

c) Estacionar en zona reservada a residentes sin disponer del distintivo de residentes de esa zona o sector.

d) No abonar la tarifa para la obtención del distintivo establecido en la ordenanza fiscal.

3.2. Infracciones graves:

a) Utilizar un ticket o distintivo manipulado, falseado, anulado, caducado o no idóneo.

b) Incumplir los titulares de los dispositivos la obligación de comunicar el cambio de domicilio o transferencia del vehículo.

c) No utilizar debidamente cualquiera de los distintivos contemplados en la presente Ordenanza.

d) Dejar de cumplir alguno de los requisitos en virtud de los cuales se concedió el distintivo sin comunicarlo al Ayuntamiento dentro del plazo establecido para ello.

e) Utilizar el distintivo una vez transferida la propiedad del vehículo para el que se otorgó.

f) No colocar en lugar visible la Tarjeta Europea de Estacionamiento para Personas con Discapacidad, o el distintivo de persona de movilidad reducida, en su caso.

g) No identificar al conductor responsable de la infracción, previo requerimiento.

h) Estacionar en las plazas de aparcamiento reservadas para personas con movilidad reducida sin tener la Tarjeta Europea de Estacionamiento para personas con discapacidad.

Artículo 12. Sanciones y medidas de regulación.

Las infracciones se sancionarán en virtud de lo establecido en el título V del Real Decreto Legislativo 6/2015, 30 de octubre, Texto Refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículo a motor y Seguridad Vial y demás disposiciones legales, complementarias y ordenanzas municipales.

Las infracciones leves serán sancionadas con 80 € (cantidad que será revisada y actualizada mediante Decreto de Alcaldía, en su caso).

Las infracciones graves serán sancionadas con 200 € (cantidad que será revisada y actualizada mediante Decreto de Alcaldía, en su caso). Además, se anulará el distintivo y se denegará otro nuevo hasta transcurrir un plazo de 1 año.

Todo ello, sin perjuicio de exigir el pago de los correspondientes precios fijados en las tarifas de la Ordenanza incluso por la vía de apremio conforme establece la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con la Norma Foral 2/1990, de 11 de enero, reguladora de Tasas y Precios Públicos, ni de la exigencia del pago de las tasas que pudieran originarse.

Las infracciones leves.

– En las zonas de larga estancia, podrán ser anuladas en los 90 minutos posteriores al vencimiento de la hora límite, mediante el pago de 15 € en temporada baja y 30 € en temporadas media y alta.

– En las zonas de corta estancia, podrán ser anuladas en los 90 minutos posteriores mediante el pago de 10 €.

Las infracciones tipificadas en el artículo 11.3, al constituir un grave obstáculo para la ordenación y mejora del tráfico y del servicio público de aparcamiento, podrán determinar por sí mismas que por parte de la autoridad municipal se proceda a recuperar la libre disposición del espacio público indebidamente ocupado, retirando dicho vehículo y transportándolo al lugar preparado a tal efecto para su depósito, con independencia de la sanción económica que se imponga.

11.3. artikuluan aurreikusitako kasuetan autoa erretiratu egingo da, Udalak denbora-mugarekin aparkatzeko egokitutako bertakoentzako lekuetan horretarako baimena ematen duen bereizgarririk gabe aparkatzen bada.

Alkateak -edo, hala badagokio, eskuordetze edo deskontzentrazio bidez jardungo duen organoak-, baimena eman ahal izango die Agintaritzaren izenean trafikoa zaintzen duten agenteei, legez ezarritako kasuetan, kautelazko neurri hau har dezaten: ibilgailuak bidetik erretiratzea eta gordetzeko izendatutako lekura eramatea.

Ibilgailua bide publikotik erretiratzeko zerbitzuak, eta ibilgailua aurreko atalean aipatutako gordailuan egoteak, udal ordenantza fiskaletan xedatutako tasak sorrazaraziko dituzte. Ibilgailua itzuli aurretik tasa horiek guztiak ordaindu beharko dira.

Alkateak -edo, hala badagokio, eskuordetze edo deskontzentrazio bidez jardungo duen organoak- onar dezake trafikorearen arloan egiten diren arau-hauste ohikoen taula bat, bai eta zigor aplikagarriena ere. Dena den, taula horiek modulatu ahalko dira unean uneko zirkunstantzien arabera.

Xedapen indargabetzailea.

Ordenantza hau indarrean sartzen den une beretik, bera betetzen ez duten xedapen, erregelamendu edo ordenantzak indargabetzen dira, eta inolako balio eta efekturik gabe geratzen dira.

Azken xedapena.

Ordenantza hau, Udalak behin betiko onartu eta testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egun igaro ondoren jarriko da indarrean.

Orio, 2022ko apirilaren 5a.—Anuska Esnal Olibiden, alkatea.
(2158)

La retirada del vehículo en los supuestos contemplados en el artículo 11.3, se llevará a cabo cuando un vehículo permanente estacionado en lugares habilitados por el Ayuntamiento como de estacionamiento exclusivo de residentes sin colocar el distintivo que lo autoriza.

El alcalde, o en su caso, el órgano que actúe por delegación o desconcentración, podrá autorizar a los Agentes de la Autoridad encargados de la vigilancia del tráfico, en los casos legalmente establecidos, a adoptar la medida cautelar de retirada de vehículos de la vía pública y su depósito en el lugar que se designe.

La prestación del servicio de retirada del vehículo de la vía pública, así como la estancia del mismo en los lugares referidos en el apartado anterior, devengarán las tasas previstas en la Ordenanza fiscal municipal, a cuyo tenor éstas deberán ser satisfechas antes de la devolución del vehículo.

El alcalde, o en su caso, el órgano que actúe por delegación o desconcentración, podrá aprobar un cuadro de infracciones más comunes en materia de tráfico, así como de sanciones aplicables, sin perjuicio de la modulación a que éstas puedan someterse en razón de las circunstancias concurrentes.

Disposición derogatoria.

Se derogan dejándolas sin valor ni efecto alguno, a partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza, cuantas disposiciones, reglamentos u ordenanzas que se opongan a la misma.

Disposición final.

La presente Ordenanza entrará en vigor, previa su aprobación definitiva, transcurridos quince días hábiles contados desde su publicación íntegra en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Orio, a 5 de abril de 2022.—La alcaldesa, Anuska Esnal Olibiden.
(2158)